

ABIZENAK

AGARRE: Ona emen oso zabal dabillen abizena, baiña aldakuntza batzukaz: "Agirre", "Agerre". Erri askotan dago olako izena dauan etxeren bat.

Adierazpena: Batzuk abereentzat barrutia dala diñoe, beste batzuk agirian dagoana.

"Agarretxu" ta "Agirretxu" be ba-dagoz. "Agarreba-rrri" be bai. Guztiak dira abaro-lekua.

AGINAGA (Ondarribia -1663): Gipuzkoan dago geien, baiña Bizkaian be entzuten da. "Agiña" zugatz bat da eta "Aginaga" zugatza dagon tokia.

Ortik etorria da "Aginagalde" eta agina dagozan lekuaren ondoan esan nai dau.

AIZPURU(A) (Zumarraga -1383): Aitzaren gainean dagoan etxea da eta, abizen lez, Bizkaian eta Gipuzkoan entzuten da.

ALBERDI (Azkoitia -1667): Gipuzkoan dabil zabalen eta "arbela" aitz edo arri-mota bat dan ezkerro, abizen onek arbel asko dagon lekua esan gura dau.

ALBIZU "SU" (Lazkano-1339): Albia bedar legortua da eta abizenak bedar legortu asko dagon tokia esan nai dau.

ALBIZURI (Azkoitia -1484): Gipuzkoatik zabaldu da abizen au eta bedar sikatua (albi) dagon lekua esan nai dau.

ALZIBAR (Donosti-1632): Azpeitian eta Gipuzkoa'ko beste erri askotan zabaldua da eta itz bi daroaz alkartuta abizen eder onek: altza (errekonduetako zugatza) eta ibar edo bizileku ona dan Jaun-unea, altzak dagozen ibarra.

ALDEKOA (Elorrio -1575): Bizkaian dabil zabalen baiña beste eskualde batzutan be bai.

"Aldatik etorria izan ezkerro, aldapan dagoana litzake baiña "alde"tik etorria izan ezkerro, "albokoa" esan nai dau.

ALEGRIA (Tolosa -1798): Egoaldeko lau eskualdeetan ugari agiri da eta erriak be ba-daroe izen ori, jatorriz "alegia".

"Ale" bedar mota bat da eta "egia" toki bat.

ALMANDOZ: Naparroako Baztan'en dau bere jatorria.

"Albi" da izena eta bedar zikatua esan nai dau. Gero atzizki bi: "an" eta "doz". Azkenengo au ez da besterik abizenen azkena baiña.

ALTUNA (Urretxua-1624) (Altonaga): Gipuzkoan dago geiago Bizkaian baiña eta ezkiak edo "alamoak" dagozan lekua esan gura dau.

ALZAGA (Aramayona -1666): Bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan toki askotan daukagu abizen au.

Altza edo "aliso" dagoan tokia esan gura dau eta azkeneko -aga indarra emoteko artzen dan atzizkia baiña ez da.

ALZOLA (Azpeitia -1501): Elgoibar'en dago izen au dauan auzo bat eta abizen lez zabal dago.

Altza da alde batetik eta bestetik ugaritasuna adierazten dauan -ola atzizkia. "Ola" Aurretik doanean burdiña egiteko edo lantzeko tokia da, baiña atzetik doanean ugaritasuna: "Uriola, Egurrola".

AMEZAGA (Eibar-1636): Araban dago erri bat izen au daroana eta Bizkaian etxe batzuk, bat Mungian.

Ametza zetagaz aritz-antzeko zugatza da eta esegaz lotan egiten dana edo oso atsegingarria dana: "Gure ametsa".

Ametzaga ametza edo aritz-antzeko "kejigo" dagon lekua da. "-aga" atzizkia indartzaille.

AMUTXATEGI (Motriko -1750): Au be ametza'tik dator eta aritz-antzeko kejigo asko dagon lekua esan gura dau.

ANABITARTE: Gipuzkoan geien. "Ana" abereentzat barrutia da eta olako biren ardian dagoan etxea "Anabitar-te". Ortik abizena.

ANASAGASTI (Oñate 1477): Bermeo-inguruan ugari abizen au.

"Ana" abereentzat barrutia da eta "Sagasti" sagardia.

ANTXIETA (Urretxua, 1648): Gipuzkoako erri askotan eta Elorrión dago izen au.

"Antxi" landara bat da eta azkeneko "-eta" k ugaritasuna dager.

Olazar'tar Martin